

MIGUEL ARRIETA

LEKEITIOKO ZINE ETA BIDEO BILERAKO OMENDUA

Lekeitioko Zine eta Bideo Bilerak bere historian ekarpena egin dabenak omenduko ditu, gaur. Miguel Arrieta bandako zuzendaria da eurretako bat.

«Beti egon gara prest Bileran joteko, herri ekimena da eta»

Lore Bengoetxea |

Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bilerak 25 urte beteko ditu datorren astean, eta zidarezko ezteiak ospatzeko ekitaldiak antolatzen hasita dago, historian lagundu deusienei gaur egingo jaken omenaldia, esate baterako. Miguel Arrieta herriko musika bandako zuzendariak Bilerako musikea ipinten izan dau sarri.

■ Musikeari betitik lotu-lotu eginda egon zara...

Etxean danok izan gara musika-riak, aititagandik hasita, eta loba eta lehengusu-lehengusinek be geure bideari jarraitu deusie.

■ Zenbat bidar hartu izan dozu parte Bileran musikea ipinten?

Eskatu izan deusten guztietan, urtero be ez dabe gure beharri-zanik euki eta. Egunak heltzen diranean geu hurreratzen gara eurakana, laguntzeko prest gagozela esateko.

■ Geu dinozu, ze ez zara bakarrik joaten....

Ez, jakina! Herriko musika banda erdia eroaten izan dot, lehenengo zine aretoan danok be ez gi-

nan sartzen eta. Geure burua ze-ozelan aurkeztu behar eta, Tala Blues Band izenagaz joaten izan gara.

■ Eta zein izaten da zuon ekarpena?

Bileran zineko genero bat hartu eta horren ganean pelikula zatiak-eta emoteko ohiturea euki izan dabe. Bateko zine beltza, besteko abenturazko pelikulak, hurrengoan barre eragiteko-ak.... Guk irudiak aurretik ikusten genduzan, eta ikusten genduanaren ganean, batetik eta bestetik hartu, eta ondo egokitzen ziran piezak sartzen genduzan. Gaur egun zinemagintzan konposatzaile onak be onak dagoz, eta behar erdia eginda daukazu.

■ Musikeak ze garrantzia dauka pelikula baten?

Handia! Eszena batzuk musika barik be ondo emoten dabe, baina orokorrean asko laguntzen dau. Lortu nahi dozun eragina lortzeko aukera handiagoa daukazu, eta guk jo izan dogunean be lortu dogu, antza, giro berezi hori sortzea, ikusleek eurek esandakoaren arabera. Eta elegante ze ez ginan egoten geu, ba, pajarita eta guzti!



LORE BENGOTXEA

ZEREGINA

«Pelikula zatiak musikeagaz girotzea izan da gure zeregina urte askoan»

■ Ikusgarrin ez dozue jo izan?

Ez, baina eskatu ezkerro, gu gus-tora. Beti egon gara prest egiten dakigunagaz laguntzeko. Herriko ekimenak bultzatzea garrantzitsua da, eta honek beronek berezitasuna dauka, gane-ra, bakarra da-eta euskerazko ekoizpenek baino ez dabelako lehiaketan parte hartzen.

■ Zelan ikusten dira pelikula-ak ikusleen aulkitik?

Konplizidadeagaz, holako gauza baten ardurea eukitea zer dan badakizulako, eta eskerrak emon behar jake antolatzaileei, urteak joan urteak etorri, Bilera-ri imajinazinoagaz eusten jakin izan dabelako.

OMENALDIA

25 urtean Bilera indartzen lagundu dabenak gogoan

Miguel Arrietagaz batera, beste batzuk be omenduko ditue, gaur: Azpeitiko Zine Kluba (eta horren barruan, batez be, Pepe Aspiazu), Juan Miguel Gutierrez, Juan Jose Franco, Maria Jesus Funbellida, Miguel Angel Kintana eta Jabier eta Jesus Larrañaga anaiak (zinegileak), eta Leopoldo Zugaza eta Xabier Unanue (antolatzaileak). Lekeitioko Zine eta Bideo Bilerak omenaldi txikia egingo deutse guztiei, gaur, Bilerari egin deusienei ekarpenagaitik. Bazkaltzera konbidauko ditue, eta, ostean, opari bana emongo deutse, egindako beharra gogoan eukita.

LABURAEAN

LEKEITIO

Jostailuak erosteko laguntzea emongo dabe

Txatxilipurdi taldeak antolatuta, jostailuen erakusketa informatiboa izango da gaur, 17:00etatik aurrera. Hiru ordutik Gabonetako opariak egineran kontuan hartu beharreko hainbat faktore azalduko ditue. Erakusketa Barandiaran aretoan izango da.

MARKINA-XEMEIN

Bilbobrass taldeak kontzertua eskainiko dau gaur

Bilbobrass ganbarako metal taldea ekarriko dabe gaur, 20:15ean, Markina-Xemeingo Karmen elizara. Ekitaldia Uhagon kultur alkarteak, Xemein abesbatzeak eta Musika Bandeak antolatu dabe, eta udazkenerako prestau daben musika eskaintzearen barruan sartzen da.

ONDARROA

Blues eta rock musikea entzungo da gaur, Antzokian

Ondarroako Kafe Antzokiak zemendirako lotu dauen egitarauari jarraituta, talde biren kontzertua izango da gaur, 22:30etik aurrera. Ari-ma Beltza eta Coll vs Costa taldeek rocka eta bluesa joko dabe.

Oriotarrak eta ondarrutarrak bat eginda kontzertuan

Kantaize orfeoia eta Orioko Salatxo abesbatzea alkarre-gaz beharrean hasi dira. Gaur, 20:00etan, Ondarroako Andra Mari elizan kontzertua emongo dabe, eta zezeilean, Gipuzkoako herrian alkatuko dira barri-ro, hango entzuleen gozamen-erako.

ONDARROA. Sardiñearen prezioak nabarmen egin dau gora eguenerako

Atun denporaldia amaitzea erabagi dabe, Azoreetan kale egin eta gero

L.B. |

Atunetan diharduenek Azoreak laga eta etxerako bidea hartzea erabagi dabe, nahiz eta ondarrutarrek eta bermeotarrek Gibraltarko itsasartean beste aha-lerin bat egitea pentsau.

Ondarroako kofradiari jago-konez, astelehenean 280 kaxa

lixa harrapatu zituen (3,97tik 3,31 eurora). Martitzenean, 6.000 kaxa sardiña egoazan portuan (0,27tik 0,24 eurora); 2.600 kaxa lantzo (0,35etik 0,41 eurora); 100 kaxa buztan beltz (1,90 euro); eta 20 kaxa erraxatu (6tik 3,5 eurora). Eguaztenean, 3.000 kaxa sardiña sartu ziran (0,28tik 0,25era);

350 kaxa salba (0,59tik 0,30era) eta 100 kaxa erraxatu (6,30etik 4,50era).

Sardiñearen salneurria

Eguenean, danetarik euki eben, baina sardiñearen prezioaren gorakadea izan zan ikusgarriena: 600 kaxa pisau zituen, eta prezioa 0,70tik 1,50 eurora bitartean ibili zan.

Atzo, 500 kaxa erraxatu (4,80tik 3,10 eurora), 80 kaxa berdel (1,50 euro) eta 600 kaxa txitxarrillo (1,26 euro) ikusi ziran.

AGENDEA

LEA-ARTIBAI

Urteerea: Lea-Artibaiko, Mutrikuko eta Debako mendi taldeek urteerea prestatu dabe biharko, Orozkora. Informazioa taldeek herri-herri daukien lokaletan emoten dabe.

Lehiaketak: Lea-Artibaiko Garapen Agentziak logotipo lehiaketara deitu dau. Beharrik Patrokuan egon behar dira hilaren 30erako.

LEKEITIO

Ikastaroa: Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik, *Ertibil* artista plastikoaren erakusketa izango da Barandiaranen, 22ra arte, 16:00etatik 20:00etara.

KZ gunea: Kultur Etxean zabaldu dabe, nahi daben guztientzat.

ONDARROA

XV. Judo Txapelketa: Artibai Judo taldeak XV. Judo Txapelketa antolatu dau gaurko, 14:30ean, kiroldegian.

Ikastaroa: Udaren Emakumearen Batzordeak ikastaroa prestatu dau andra eta gizonen artean etxeko ardurak banatzeko helburuagaz. Eskolak abenduaren 3an hasiko dira, eta izena zementiaren 25erako emon behar da.

Umeen gunea: Bihar, 17:00etan, Irintzi txotxongilo taldeak *Bakartxoren zapatila* beharra aurkeztuko dau, Antzokian. Sarrerak bost euroan jarriko ditue saltzen (euro bitan Zenbat Gara laguntzotzat).